

emari ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

ARTE  
EDERREN  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE BELLAS  
ARTES

# ZERAMIKA: ARTEA ETA FUNTZIOA MASTERRA

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)

---

## AURKEZPENA ETA HELBURUAK

---

Historian zehar, buztina eta zeramika somenerako erabilgarriak izan dira, berez dituzten ezaugarriek esker. Arte Ederretan, gainera, presentzia garrantzitsua izan dute. Ezin dugu ahaztu industriaren inguruan duten garrantzia, etengabe esperimintatzen eta berritzen ibiltzeko eta prozedura eta teknologia berrietara heltzeko tradizio sustraitua dute eta. Antzeko zerbait gertatzen da artearen profesionalen lengoia berriekin: zeramikak gauzak adierazteko gaurkotasuna eta bizitasuna mantentzen du. Nazioartean ezagunak diren artistek zeramikaren aukera desberdinak sartzen dituzte haien proposamen berritzaileenetan; hori errealitatea da.

Zeramika: Artea eta Funtzioa Unibertsitate Masterraren helburu nagusia ikasleak espezializatzea da, hau da, zeramikak gaur egun dituen adierazpen artistiko guztietan trebatzea, bai teoriarik baita praktikan ere. Horrez gain, artearen eta diseinuaren arteko erlazioa ere jorratuko da; eta horien erreferente garrantzitsuena eskultura da. Masterraren prestakuntza helburuak hiru bidetatik doaz: zeramikazko eskulturen proiektuak aztertzeko eta sortzeko

gaitasunak eta trebetasunak hartzea eta garatzea; zeramika-diseinua aztertzeari eta sortzeari lotutako errealitate desberdinak hautematea, ulertzea eta adieraztea; eta zeramikaren eta arte garaikidearen inguruko pentsamendu, pertzepzio, komunikazio eta estatika trebetasunak garatzea.

Masterra profesionala denez, sektoreari lotutako enpresetan praktikak egiteko aukera eskaintzen da. Zeharkako gaiak lantzea bultzatzen dugu, eta horretarako, UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko eta Estatuko beste unibertsitate batzuetako hainbat sailletako irakasleek osatutako irakasle taldea dugu, eta ospe handiko artistak eta profesionalak ere aritzen dira.

Zeramika tailerra dugu, horretarako beharrezko diren azpiegitura eta espazioekin. Gainera, programako irakasgaietarako ikasleen eskura jartzen ditugu tresnak eta oinarritzko material batzuk, ikasle guztiek erabiltzeko; hala ere, ikasle bakoitzak bere proiektuak ditu bere proposamenak lantzeko, eta horretarako, ikasle bakoitzak bere gain hartu behar ditu tresnak eta materialak.

---

## SARBIDEA

---

Titulazioa: Arte Ederretako edo Ikusizko Arteetako, Diseinuko, Artearen Historia eta Arkitekturako gradua edo lizentziatura. Batzorde Akademikoak baimena eman dezake unibertsitateko beste titulu baliokide batzuetako ikasleak hartzeko.

Horrez gain, kontuan hartuko da eskulturen arloan edo zeramikako diseinuaren arloan izandako prestakuntza edo esperientzia.

---

## IRTEERA PROFESIONALAK

---

Arlo profesionalean, irakasleak, artistak, diseinatzaileak, zeramikagileak eta kultura kudeatzaileak izan daitezke.

Arlo akademikoan, ikerketara jo dezakete eta doktorego-programan sar daitezke.

---

## OINARRIZKO INFORMAZIOA

---

**Eskolak emateko lekua:**

Arte Ederren Fakultatea (Leioa).

**Irakaskuntza mota:**

Eskolan bertakoa.

**Hizkuntza:**

Gaztelania.

**Gutxi gorabeherako prezioa:**

1.800-2.000 €.

**Egutegia:**

Urritik maiatzaren amaierara; 15:30etik 19:30era, asteleheneetik ostiralera. Praktikak, maiatzean: 70 ordu. Ohiko ebaluazioa ekainean; ezohiko deialdia, irailean.

ZERAMIKA: ARTEA ETA  
FUNTZIOA MASTERRA

---

## IRAKASTORDUAK / IRAUPENA

---

60 ECTS / ikasturte 1

<b>Nahitaezko Gaiak</b>	<b>Hautazko Gaiak</b>	<b>Proiektuak / Ikerketa-lanak</b>	<b>Guztira</b>
38 ECTS kreditu	6 ECTS kreditu	7 ECTS kreditu enpresa-praktiketan + 9 ECTS kreditu	60 ECTS kreditu

---

## PRESTAKUNTZA PROGRAMA

---

**Nahitaezkoak:** 1. lauhilabetea

- Moldearen ideia eta kontzeptua (6 ECTS).
- Esku-hartze zeramikoak planoan (6 ECTS).
- Materiaren egoerak: artea paiaisia ekologia eta zeramika. (4 ECTS).
- Zeramikako produktuen diseinua eta komunikazioa (3 ECTS).

**Hautazkoak:** 1. lauhilabetea

- Zeramika historikoa eta garaikoa (3 ECTS).
- Zeramikari aplikatutako serigrafia-teknikak (3 ECTS).
- Biraketa-moduak eta -solidoak (tornua): eraikuntza-metodoak eta aukera plastikoak (3 ECTS).

**Nahitaezkoak:** 2. lauhilabetea

- Eskultura eta zeramika (7 ECTS).
- Zeramika eta arkitektura (4 ECTS).
- Euskarririk haratago: Zeramikara aplikaturiko teknologia (3 ECTS).
- Objektu zeramikoaren testuinguruak 1 (1 ECTS).
- Objektu zeramikoaren testuinguruak 2 (2 ECTS).
- Formatu handiko eskultura-objektuaren eraikuntza. Eskultura publikoa (2 ECTS).

**Jarduera osagarriak:**

Ikasturte bakoitzean zeramikaren arloko artista eta teknikariak izaten ditugu gonbidatu mintegietan eta tailerretan. Horrez gain, irteerak, bisitak eta erakusketak antolatzen ditugu.

---

## HARREMANETARAKO

---

**Master Arduraduna:** Carmen Marín Ruiz

**Tel:** 946012975

**Posta elektronikoa:**

mariacarmen.marin@ehu.eus

**Idazkaria:** Patricia Rodríguez

**Tfno:** 946015477

**Email:** patricia.rodriguezg@ehu.eus

---

## ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK / BABESLEAK

---

- AMORÓS I CORTIELLA S.L. Barcelona.
- Atelier Laia. (Santos Bregaña) San Sebastián.
- Kultur Leioa. Ayuntamiento de Leioa.
- VERSA, sa. Bilbao
- Vista Alegre Atlantis, Aveiro. Portugal
- Museo Ollerias, Elosu.(Araba).
- Taller Escuela de Cerámica de Muel. DPZ. Zaragoza.
- Bussoga, San Jordi Desvalls, Gerona.
- Domanises. Manises, Valencia
- Ana de Felipe Royo, Villanueva de Huerva, Zaragoza

